


Astekaria



elgoi



**Zuhaitz  
zaharren  
kimu berriak**



**SORALUZE** AROZTEGIA

ALUMINIOA - POLIURETANOA - PVCa - EGUR MISTOA

ATEAK ETA LEIHOAK - ARMAIRU ENPOTRATUAK - PERTSIANAK

FABRIKA: Olasope, 66  
Olaso industrialdea  
Tel. - Faxa: (943) 74 21 03

ERAKUSKETA: Santa Ana, 3  
Tel.: (943) 74 36 34  
ELGOIBAR

**Prezio  
bereziak  
bainurako  
manporetan**



POLIURETANO, PVC, eta ALUMINIO AROZTEGIA



LEIHO  
ISOLATZAILEAK

*Irtenbiderik onena!*

Santa Ana, 18  
Tel. 74 43 83  
ELGOIBAR

## ARMAIRU

*Espazio gehiago  
edukitzeko modurik  
aproposena!*



# OSTARKEU



**ESKA EZAZU ORDUA  
ZURE JAUNARTZE  
ARGAZKIETARAKO**

**Bizitza guztirako oroigarria  
izango duzu**

*Ez laga azken  
momenturako. Zatoz!*

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementería.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegí, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-

1.038/92


**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa  
fundación kutxa

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

# Lorik eza

**D**enok dakigu gure gorputzak osasuntsu eta sasoi betean egoteko eguneroko atsedena behar duela. Gaua da norma-lean atsedean hori hartzeko tarterik aproposena, baina, sarritan bizi-tzako hainbat eginkizun direla bide, ez dugu behar adina lo egiten, zoritxarrez.

Animalia gehienek gauaz lo egiten dute, gutxi batzuk salbuespen direlarik. Gizakiak ere, bere bizitzako heren bat inguru lotarako behar du.

Eta guk, zenbat ordu jaten ote dizkiogu gauari lorik egin gabe, atsedean hartu behar genukeenean?

Hasi helduengandik eta haurrenganaino lo gehiago egin beharko genukeela deritzot.

Telebista dugu sasoiz oheratzea galarazten digun etsaietariko bat. Ikus-kizun gogokorik badago, ikusi egin behar izaten dugu: pelikula onen bat, futbol partiduak, dokumentalak, etab. Honela, geure burua nekatu eta makaltzen ari gara ia egunero, ezari-ezarian, sekulako ondorio kaltegarriak geureganatuz. Eta, lo gutxi edo behar beste ez dagienak sarri izaten du han edo hemen arazo edo gaixotasunen bat: umore txarra, kirioak aztoratuta, gorputzeko mina, logalea, nekazioa... Izan ere, loa baita gorputzarentzat (ura eta airea diren bezalaxe) elementurik oinarritzko-enetariko.

Gazteen artean ere, asteburuetan etxetik irten eta sekulako gaupasak egin ez dabilta asko, biharamun goizaldeko ezorduetan itzultzen direlarik.

Istripu dexente ere izan ohi da beranduko orduotan, baina horrelakotan lorik ezari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen: “bai ba, eranda jungo zuan da...!” edo horrelakoren bat entzungo dugu sarrienik, logabeziak zerikusirik ez bailuan.

Istripu horietako askoren sorburua ez ote da gero logabezia bera? Gabezia horrek gorputza ahuldu, gaixotu eta adoregabetuz, erreflexuak moteltzean istripu-arriskua gehi lezake, ondorio beldurgarriak sortaraziz.


HIESaz, kutsaduraz, ekologiaz eta abarrez hainbeste mintzatzen garen une honetan, hondamendira garamatzen logabeziaren arazo larri honi ere aurre egiten asmatuko ahal dugu, dagokion garrantzia emanaz!

Honetan ere, beste askotan bezala, animaliak ditugu eredu. Begira bestela gure hegaztiei; iluntzean eguzkiarekin batera erretiratzen ikusiko ditugu eta biharamuneko egunsentian hor irtetzen dira beren gordelekuetatik zalu eta kantari inguru guztiak alaituz.

Guk ere izan diezaiogun gauari zor zaion begirunea.

Juan Mari Elustondo

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

- San Pedroko etxeetan dagoen parkean jolasten ibiltzen den mutiko batek parkearen egoera tamalgarria salatu nahi du: "parkea erabat utzita eta kolunpioak eta "ruleta" apurtuta daude, eta dagokionari lehen bait lehen konpon dezala eskatuko nioke".

- Irakurle batek kalean irakurri duen pintada egin dutenak salatu nahi ditu. Pintadak honako hau dio: "Los amigos judios del PNV están bombardeando a la población civil". Egileei honekin zer esan nahi duten publikoki azaltzeko exigitu nahi die, "balorerik eta argumenturik baldin badute behintzat".



## TXALOAK

- Emakume batek deitu digu Aste Santuko prozesioak berreskuratzeko ideia izan eta lanean ibili direnak txalotzeko. Bere ustetan berreskuratzea merezi duten ohitura zaharrak badaude eta prozesioena horietako bat dela uste du.

- Ikastolako zazpigarren mailako neska-mutilen txaloa da honako hau. "Ikastolako 7. eta 8. mailako zortzi neska zoriondu nahi ditugu ETB-1eko Super Bat saioan playback finalera iritsi direlako. Finale-rako animoak eman eta zorte on opa nahi diegu.

## ESKUTITZAK

### Besterik ez genuen behar!!!

**H**orixe zen burura etorri zitzaidana aurreko asteo BARREneko (147. zkia.) eskutitza irakurri nuenean. Orain badirudi Elgoibarko alkate jauna eta HB mokoka ari direla prentsan eta horren arduradun Udaletxean gauden beste alderdiok garel.

Lehenengo esan behar poztu egin ninduela norbait herriko gaiez interesaturik dagoela ikustek. Dena den, prentsan ez azaltzea, ez garel enteratzen edo ez dugula nahi bustitzea esatea, gehiegitxo esatea dela iruditzen zait.

Gu herriarentzat lan egiteko hautatuak izan ginela iruditzen zait. Ez ginen hautatuak izan, A.L.k. dioen bezala, Goenkaleko kapituluak prentsan agertarazteko. Gure lana legegintzaldi hasieran esan genuen bezala udaletxeko gaiak ahal den eta botu gehienekin aurrera ateratzen saiatzea da. Baina lan hori plenoetan eta batzordeetan egiten dugu, eta ez prentsan notak ateraz, bestela aktetara joan besterik ez dago.

Azken puntuan herritarrari informazioa zor zaiola ere dio A.L.k. Dudarik ez! Baina gehiago esango nuke, herritarrak informatuta egoteko eskubidea eta beharra ere badu eta horretarako ez da prentsan ematen diotenaren

zain egon behar, baditu beste medio batzuk, pleno eta batzordeetara joan (oso jende gutxi biltzen da bertan) edo eta gure taldeko hiru zinegotziok behintzat ostegunero 7,30etatik aurrera San Roke auzoan dugun Alkartetxean egoten gara edozeini, edozein informazio emateko prest.

Bukatzeko, eta ez dut epaile gisa agertu nahi, eskutitzaren hasieran aipatzen diren bi gairi erantzuna emango diet, enteratzen garel edo bustitzea ez zaigula inporta adierazteko:


1- EA gobernu batzordean dagoenetik (oraingo legegintzaldi hau) ez da Elgoibarko Udaletxean inolako kontratazio irregularrik egin. Ezin dugu hori esan aurreko legegintzaldiari buruz.

2- HB normalean joaten da batzordeetara, nahiz eta plenoa tokatzen den asteetan batzorde batzuetan ez den agertzen.

**Ales Arrieta**

**EAKo bozeramalea Udaletxean**

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**E**lgoibarko Udal Musika Banda ageri zaigu 1923ko abuztuaren 24an, San Bartolome egunean Altzola dorretxearen aurrean ateratako erretratuan. **Felix Ansola** txistulariak laga digu **BARREN** argitara dezagun.

Hogeita zazpi gizonezko dira guztira Felixek esan bezala, batzuk Eibartik etorritakoak ziren, San Bartolome eguneko kontzertuan laguntzaile modura jotzera etorritakoak. Ageri direnietatik denak daude hilda F. Muguruza izan ezik.

Zutik ezkerretik eskumara: **Maximo Sasieta,**

**Benigno Opakua, Isaac Azpiazu, Angel Gisasola, Alberto Mas eibartarra, Francisco Etxeberria, Ignacio Iriondo, "Zumai Txikixa" eibartarra, David Azpiri, Galo Iriondo eta Agustin Zuloaga eibartarra.**

Erdian eserita: **Jose Mari Ziaran, Laureano Ansola zuzendariordea, Canuto Gabilondo, Ignacio Bereziartua zuzendaria, Victor Gisasola, Balbino Arrieta eibartarra eta Roman Gisasola.**

Lurrean eserita: **Juan Salaberria, Marcelo Iriondo, Francisco Muguruza, Justo Barrutia, Asensio Bereziartua, Luis Zubiaurre, Cesareo Zangitu, Pepe Arano eta Jose Ansola.**

**RAKS**  
SEGURITATEA  
74 42 65

**Maria Urizar**  
ileapaindegia  
eta solariuma  
Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

**Kidea**  
**ASESORIA ETA CONSULTING**  
- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -  
**INBERTSIO PROIEKTUAK**  
Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR


# Belaunaldien arteko katea

**Bizitzaz goatzeko gero eta denbora gehiago dago. Eta horren adierazgarri dira 80 urte eta gehiago dituzten pertsonak. Urteetan aurrera egiteak gauza asko ekartzen ditu. Bizipenak gehiago eta aberatsagoak izan ohi dira. Eta horrez gain, norberaren izena eta izana belaunaldiz belaunaldi nola garatzen eta ugaritzen den ikusterik ere badago. Gaurkoan herriko hainbat birramona eta birraitona ekarri ditugu gure orrialdeetara eta horiekin batera beraien bilobak. Guztien ahotan irri bat marraztu zen erreportaia honen berri eman eta beraien ere argazkietan ateratzeko aukera zutela jakin zutenean. Hemendik 10 urtera herenamona eta herenaitonekin gauza bera egiterik izango al dugu?**



### Maria Jauregi eta Ainhoa Rementeria

Mariak 84 urte ditu. 19 urterekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen. Orain bost urte biloba bat izan zuen, Ainhoa. Biloba seme-alabak baino gehiago mimatzen duela aitortu du, “gehixegi”. Ainhoari amama Mariaren “takoidun zapatak” gustatzen zaizkio eta askotan haserretzen direla ere jakin dugu, “ni batzuetan piskat gaiztua naiz eta”, esan digu Ainhoak. Adinean diferentzia handia dagoen arren, asko ikasten omen du batak bestearengandik, “Ainhoak dantzan eitzen erakusten dia, nik hanka arinak ez dakat baina bera ikustia gustatzen jata”.




### Isabel Bergaretxe, Josu Atxa, Eneko Iriondo eta Iker Usobiaga

Orain 83 urte jaio zen Isabel, “gaztetan pasau nitxun pasatzeko guztixak eta oin ondo nabil osasunez”. 20 urte zituela ezkondu eta gaur egun hiru biloba ditu, “Iker, 7 urtekua, Josu, 5 urtekua eta Eneko, 3kua”. Isabelek esan digunez, “sekula ez dot kopinik izan, behin erregalau zien bat eta apurtu ein jatan. Bilobak nerretzat kopinak dia, benetakuak gainera, onerako eta txarrerako. Batzuetan preokupaziua baina beste askotan poza ematen die”. Amama Isabelek “pagia” ematen omen die hiru mutikoei, hala esan digute behintzat, eta gustura egoten dira berarekin.

## Teodosia Iriondo eta Alberto Arberas

89 urte ditu eta gutxiago izan nahi lituzkeela aitortu digu, “80kin konformauko nitzake”. Teodosia 24 urterekin ezkondu eta alaba bakarra izan zuen. Orain biloba ere badauka, Alberto, 5 urtekoa eta “beste bat bidian”. Bilobek “zahartu egingo dabe baina ni ez naiz konturatzen”. Etxeko txikienar maitatzen da gehien, “edo mimau behintzat”. Albertori animaliak gustatzen zaizkio, “salamandrak, sugiak...”. Teodosiak behin esan omen zion baserrira joan behar zela bizitzera eta Albertok, “baserritxarra izango naiz” erantzun zion.



## Marcos Arregi eta Janire Uranga

82 urte ditu Marcosek eta San Antolinen bizi da, Oleta baserrian. Zazpi hilabeteko bilobatxoa du, Janire, “urte askoko diferentzia daukagu eta gauzak asko aldatzen dira, arropak, heziketa desberdina da...”. Halere, bada gauza bat berdin mantentzena dena, “seme alabak nahiz bilobak jaio behar direnean, ardura beti daukazu, ondo aterako den ala ez, osasuna izango duen...”. Ostantzian, “jugetetxo bat da. Gurera etortzen danian poza ekartzen dau”. Oraindik ibiltzen ez daki Janirek baina Marcosek egunen batean bilobatxoa eskutik hartu eta harekin pasiaran jutea nahiko luke.

## Maria Zelaia, M.Luisa Arano, Maria Zulaika eta Julen Ibarluzea

Julen Ibarluzeak bi urte ditu eta hiru birramona: Maria Zelaia, 71 urtekoa, M.Luisa Arano, 77koa eta Maria Zulaika, 84 urteko arronatarra. Hirurak baserritarrak dira eta garai haietan gazte ezkontzen zen, 18-20 urterekin. Seme-alaba mordo bat izan eta gero orain bilobarik ere badute, “bilobekin asti gehixo dakazu eta gehixo gozatzen dozu”. Hiruren ilusioa, “umiak komunixua ein eta mutil koskor einda ikustia” da. Juleni, jakin dugunez, “amama Mariaren baserrira jun Arronara eta han antxumiakin jolastia gustatzen jako”. Arrazoi osoz esan dute hirurek bilobek “bizitza poztzen” dutela.



## Gregoria Gorostidi, Iker, Aitor eta Ander Ecenarro eta Leire Melgosa

20 urterekin ezkondu zen Gregoria, 82 urte ditu eta orain dela bi, hiru biloba izan zituen, “Iker, Aitor eta Ander hirukixak”. Gregoiriari gazteen artean egotea gustatzen zaio, “etxian bilobak eukitziak gaztetu ein nau”. Bazkal ostean telenobela ikusten du eta gero, Jubilatuen Etxera joaten da, lagun artean karta jokoan ibiltzera. Orain hilabete laugarren biloba jaio zen, Leire, “beste poz bat gurera”. Hau txikia da oraindik, hiru mutikoez, aldiz, ondo ezagutzen dute amama Gregoria, “beti gailetak eukitzen ditxut boltsan eta badakixe, ikusten nautenian, antxitxika etortzen dia gaileta bila”.

## Geroari begira

**B**izitza baldintzen, elikadura nahiz garbitasunaren hobekuntzek, bai eta medikuntza aurrerapenek ere, gizakion bizi itzaropena nabarmenki luzatu dute. Horrela, lurralde garatuenean 70 urtetik gorakoa izatera iritsi da. Hainbat kasutan, ostera, eta beti ere medikuntzak ahalbideratuta, bizitza iraupen soil bat izatera hel daiteke (gaixotasun, istripu eta abarren ondorioz, esate baterako). Hori horrela izanik, bizitza gustatuko litzaidakeen urte kopurua mugatzea oso zaila iruditzen zait. Akaso 85 urte (zenbaki bat aipatzearen).

Lehenik eta behin, bizirik nagoen bitartean bakarrik moldatzeko gai izatea ezinbestekoa dela uste dut, maila batean behintzat. Era berean, ez nuke nere bizitza ohe batean etzanda igaro beharreko orduetara mugatzerik nahi, baina batek daki!

Bestalde, ezaguna da gure gizartean jaiotze tasa baxua dela



AMAIA GABILONDO

eta zahartzaroaren presentzia handitzen ari dela. Ni neu, aro hau oso gogorra delakoan nago, pertsona nagusiek arreta eskatzen baitute eta askotan etxekoei ezinezkoa baitzaie berau eskaintzea. Ondorioz, gero eta jende gehiagok zaharren egoitzetara jotzen du. Hala ere, aipatzekoa da aitona-amonak etxeko giroari beraien aportazio aberasgarria ere eman diezaioketela. Biloben babesle nekaezinak dira eta, gainera, beste gauza guztien gaintik maita ditzakete horren truke ezer gutxi jaso gabe. Honekin batera, jakituria eta esperientziaren iturri dira etxekoentzat. Era berean, biloba eta aitona-amonen arteko elkarbizitzak belaunaldi ezberdinak aurrez aurre izateko aukera ematen du eta beharbada ezberdintasun honek are gehiago lotzen ditu.

Amaitzeko, bizitza bizi egin behar dela esatea gustatuko litzaidake eta askotan kalitatea kantitatearen aurretik dagoela.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

okindegia eta gozotegia  
San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
ELGOIBAR



## Zenbat urte bizi nahi zenuke?




**ENCARNACION PAREDES**  
62 urte, etxekoandrea

Nik ez nuke inoiz hiltzerik nahi, bizitza osoa bizi nahi nuke. Egunen batean hil egin behar dudala pentsatze hutsarekin gaixotu egiten naiz. Zenbat eta urte gehiago bizi, hobeto.



**FRANCISCO MACHADO**  
51 urte, enkargatua

Mordo bat! Orain bezala, egonez gero, zenbat eta gehiago orduan eta hobeto, baina gaitzen bat izatekotan, etxean traba egin baino, hobe hiltzea. 80 ondo legoke, 100 gehiegi.



**ITZIAR GURRUTXAGA**  
19 urte, ikaslea

80 urte edo. Bueno 70 urterekin konformatuko nitzake, hortik gora nere kontura ibiltzeko kapaza izango ez banintz eta pertsona bat biharko banu zaintzeko, hobe hiltzia.




**JOSE LIZUNDIA**  
62 urte, jubilatua

90 urte nahi nituzke izatea orain bezala egotekotan. Ondo egotea da garrantzitsua, bizitze hutsagatik ez da gehiago aguantatu behar. Zertarako? Traba egiteko?



**ROSA ARISTONDO**  
60 urte, etxekoandrea

Ondo izanez gero, 90 bizitzia gustatuko litzaidake baina igual gehixegi dia. 60 daukaz, ba beste 20 gutxienez ondo egongo litzake. Oin ondo bizi naiz, heriotzian pentsau gabe.



**ASIER ESNAOLA**  
21 urte, ikaslea

80 urte eta ondo. 100 urte gehixegi izango litzake. Nik usten dot 80 ondo dauala eta gaur egun nahiko normala da. Zaharra baina ezinduta egotekotan nahixo dot gazte hiltzia.

**GRUAS PANA** ☎ **74 38 39**  
**77 06 23**  
**24 ORDU - BIDAI ASISTENTZIA ZERBITZUA**

**BERDIN, S. A.**

MATERIAL ELEKTRONIKO  
ETA INFORMATIKO  
BANATZAILEA

OLASO INDUSTRIALDEA  
Olasope kalea, 3  
Tel. (943) 74 12 00  
Faxa: (943) 74 30 07  
**ELGOIBAR**

## ■ Oreretako Andra Mari abesbatzaren kontzertua

Larunbatean, hilak 20, Errenteriako Andra Mari abesbatzak San Bartolome parrokiaren abestuko du kilometroen ospakizunen barruan. Aipatzekoa da abesbatza hau Torremolinos-eko topaketetan parte hartzetik datorrela eta Cadiz-eko San Fernandoko urrezko domina irabazi duen abesbatza bakarria dela Euskal Herrian. Musika mota honen barruan maila handiko abesbatza da Euskal Herrian. Bi zatitan banatutako kontzertua eskainiko dute Brahms, H. Eslava eta beste musikari atzerritar eta euskaldunen obrak abestuz. Kontzertua iluntzeko 8etan hasiko da San Bartolome parrokiaren.

## ■ Mintxetako tabernarako eskakizunak

Mintxetako tabernaren ardura hartzeko proposamenak aurkezteko epea datorren ostiralean, hilak 26, azken hau barne, amaitzen da. Udalak 45.000 pta.ko gutxieneko errenta eskatzen du; hortaz, errenta hori gainditzen dituzten eskaintzak izango dira aukera gehien izango dutenak. Proposamenak Udak Kirol Patronatuaren egoitzan (Kultur Etxea) utzi behar dira, beranduenez hilaren 26an.

## ■ Plater tiraketa larunbatean San Pedron

Bihar, larunbata, hilak 20, La Unión Ehiza eta Arrantza elkarteak herritarrentzat bakarrik izango den plater tiraketa txapelketaren lehen saioa burutuko da San Pedroko tiro zelaian. Biharko tiraldiaren ostean, beste saio izango dira, hilaren 27an bat eta maiatzaren 4an iazkena. Izen-ematearen zenbatekoa 1.500 pta.koa da bazkideentzat eta 2.500 pta.koa gainontzekoentzat. Behar-beharrezkoa izango da parte hartzeko tiro litzentzia edukitzea.



**Ibai Klubeko bost judoka** hauek gerriko beltza lortu zuten joan den larunbatean eta igandean Logroñon izan zen txapelketan. Ezkerretik eskumara Andoni Atrio, Gorka Garate, Merce Rey, Javier Quintano eta Aitor Garate ageri zaizkigu. Pasa den larunbateko borrokaldeen ostean igandean epaimahai zorrotz batek jarritako azterketa tekniko gaitu zuten bostok. Hauekin zortzi dira dagoeneko Ibai Klubean gerriko beltza duten judokak. Igandean, hilak 21, Gorka Garate eta Carlos Angulok Oreretako Kiroldegian izango den txapelketan parte hartuko dute.


## ■ Zilarrezko garaikurra 23 odol emailerentzat

Odol Emaileen elkarteak zilarrezko garaikurra emango die herriko hogeita hiru gizon eta emakumeri 25 alditan odola emateagatik. Donostiako Atano III. frontoian burutuko den ekitaldi berezi baten bueltan, goizean meza, jarraian XXXI. batzar nagusia, garaikur banaketa eta 2,30ak aldera lagun arteko bazkaria izango dute. Bazkalostean eta dantzaldia baino lehenago, Donostiako dende emandako milioi erdi inguru pta.ko balioa duten opariak zozketatuko dira bertan bildutako jendearen artean. Bestetik, datorren ostiralean, hilak 26, odola aterako zaie aurrez deitutako herritarrei arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean P. M. Urruzuno 8ko egoitzan.

## ■ Grafologia ikastaroa

Elgoibarko Izarrak hiru saioz osaturiko grafologiari buruzko ikastaroa antolatu du. Idazkera eta marrazkien bidez pertsonen nortasuna eta ezaugarri psikikoak ezagutzeko oinarriko tekniken berri emango du Iruñe Ibarra psikologo eta grafologo markinarrak. Lehen saioa datorren ostegunean, hilak 25, izango da Kultur Etxean. Bertan grafologiaren historia, eskolak eta aplikazio praktikoak, espazioaren erabilpena eta neurriaren esanahia eta "t" letra aztertuko dira. Bigarren saioa hilaren 29an izango da eta azkena maiatzaren 9an. Hiru saioak arratsaldeko 7etan hasiko dira Kultur Etxean. Izena emateko Elgoibarko Izarrera zuzendu edo bertako 74 16 26 zenbakira deitu hilaren 22an beranduenez. Plazak mugatuak dira.

## Zigor Gazkezek diskoa grabatu du



Zigor Gazkezen lehen diska ekainean izango da kalean. Diska 14 abestiz osatua dago, guztiak euskaraz eta IZ disketeak argitaratu du. Zigoren hitzetan “diska anitza da, denetik dauka. Letrek gai guztiei buruz hitzegiten dute”. Kitarra eta armonika erabiltzen ditu Zigorrek abesti guztietan eta bat edo beste

laguntzeko, organoa ere sartu du. Grabatuta daukan arren, maiatza bukaera edo ekainera arte ez da kalean izango. Jende aurrean jo zuen lehen aldia azaroan Azkoitian eman zuen kontzertua izan zen. Orduetik hainbat tokitan jo du. Diska hau aurrerapauso garrantzitsua da 26 urteko gazte honen karreran.

## ETAren bake proposamena aurkeztuko du HBk mitin-jaialdian

Mitin Jaialdi baten bidez, HBk ETAren bake proposamena ezagutarazi nahi du herrian. 1995eko apirilaren 26an kaleratu zuen ETAK bake proposamena, HBren ustez, “bai Estatu Espainolak bai eta alderdi politikoek, isilean mantendu nahi izan dute. Jon Idigoras proposamena kaleratzeagatik atxilotua dago”. Izaskun Aroza, HBko kideak prentsaurrekoan adierazi zuenez, “ezker abertzalearen nahia, bake proposamen hau irekia izan eta herritarren artean debatea sortzea da”. Azken finean, “Euskal Herriaren arazoa herritarrek eztabaidatu behar dute, sektore guztiek parte hartuz”. HBk bi fasetan banatu du guztia, “batetik, HBk herri guztietan aurkeztu zuen aipatu proposamena”.

Bigarren fasea, berriz, “sektore ezberdinekin egon, eztabaidatu, zalantzak azaldu eta guztion artean hitzegitea” litzateke. Bigarren faseari ekiteko antolatu duten mitin-jaialdia ostegunean, hilak 25, izango da arratsaldeko 9etan hasita Herriko Antzokian. Jaialdian batetik, mitina izango da bake proposamenari buruz eta bestetik, lurralde batasuna isladatzeko, probintzia batzuetako ordezkariak etorriko dira, besteak beste, txalaparta, *Haritz* dantza taldea, *Guk* musika taldea eta abar izango direlarik. HBren iritziz “herritar guztiena izan beharko litzateke bake proposamenaren arduraren, guztiak inplikatu. Debatitzen hasi behar dugu konflikto honetatik atera nahi badugu”.

## ■ Euskal Eskola Publikoaren jaia

Elgoibarko Herri Eskolak eta Herri Institutuak igandean, hilak 21, Gasteizko Mendizorrozan izango den eskola publikoaren 5. jaira joateko autobusak antolatu ditu. Antzerkia, bertsolarik, abesbatzak, lehiaketak, sariak, ipuin-kontalariak etab. entzuteko parada izango da egunean zehar. Autobusak goizeko 10etan irtengo dira Pedro Muguruza, Madala eta Sigmako zubitik. Izena emateko 74 08 79 eta 74 02 67 zenbakietara deitu edota aipatu eskoletara zuzendu.

## ■ Oporrak minusbalituentzat

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak eta Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak ezintasun fisiko edota sensorialak dituzten pertsonentzako oporraldia antolatu du. Oporraldi programan parte hartu nahi duten guztiak Udaletxeko Ongizate Sailarekin harremanetan jar daitezke 74 10 08 zenbakira deituz.

## ■ Udaltzaingoaren oharra

Azken aldian Udaltzaingoa bildutako arropak Caritas-era bidaltzeko asmoa dagoenez, zerbait galdu duenak azken begiratua emateko aukera izango du arropa mordoaren artean. Udaltzaingoa lehen bait lehen joateko eta begiratzeko eskatu nahi die herritarrei Caritas-era ahalik eta azkarren eraman ahal izateko.

## ■ Zazpikiren bilera

Zazpiki irratia hileroko bilera egingo du larunbatean, hilak 20. Goizeko 11,30etan izango da Zazpikik Aita Agirre plazan duen egoitzan. Irrati zaletu guztiei bilerara joateko deia zabaldu nahi diete arduradunek.

Juan Ignacio Arizmendi:

## “Poz haundixa sentitxu naban Aldaiagatik”

341 egun ETaren esku egon eta gero, joan den igandean Azkaraten askatu zuten Jose Mari Aldaia. Kurutzeta baserrikoak izan ziren Aldaia ikusi zuten lehenak. Egunkari guztietan irakurri izan da, dagoeneko, telefonoz semeari deitu eta kafesnea gailatekin hartu zuela, hotzetik ateratzeko. Guk ere Arizmenditarrengana jo dugu, gauza gehiago eta berriagoak jakin nahian.

Iritsi eta Galiziako telebista ere bertan zen. Egunotan, ezusteko baten ondorioz, protagonista bihurtu dira Kurutzeta baserrikoak. 39 urte ditu Juan Ignaciok eta Diputazioaren obretan egiten du lan. Sekula ez zuen imajinatu egun batean bere burua egunkari eta telebista guztietan ikusiko zuenik. Alabak, berriz, eskolan “Aldaia” deitzen hasi zaizkiola esan digu.

- Nahi gabe, pertsona famatu bihurtu zara.

- Bai, hala da. BARREN ikusten naban guztietan kalia argazkizak etaritzen, ihes eitzen naban eta oin, beixu... Espainako telebisiuan ere atera naiz. Eta lehenguan emakume batek autografa eskatu zian.

- Telefonoa egon al da isilik une batez?

- Apenas, zapatu gabetik gaur arte denbora guztian egon da bateron bat deitzen. Lorik ere ez digute laga eitzen. Kantzauta amaitxu dou.

- Karta jokuan zeunden norbait ate joka hasi zenean, ez?

- Bai, batzuk txintxoian, beste batzuk telebisiua ikusten... Alabak entzun zaban atia eta begiratzera jun nitzan. Leixotik kanpora ez zan asko ikusten, ilun zauan, baina pertsona bat zala igarri naban. “Soy Jose Mari Aldaia” esan zian.

- Eta, sinestu al zenion?

- Etxera sartu eta bertakoei esan niuen Jose Mari Aldaia zala esaten zaban pertsona bat zauzala kanpua. Atarira urten, kanpoko argixa ixotu eta hobeto ikusi genduan zein



### “Aldaia agertu zan tokixa bezala ezagutuko gaitxue”

zan. Gora igotzen lagundu eta barrura pasatzeko esan ginun.

- Beldurrik pasa al zenu-ten?

- Ez, momentuan poz haundixa beragatik. Baina segitxuan pasatu jatan burutik zelako mobida haundixa zatorren gure gainera.

- Semeari etxera deitu eta etorri bitarteko unea nola pasa zenuten?

- Hotza zaukan eta kafesnia edan zaban, gaila- ta batzugin. Han egon

ginan berakin piskatian, periodikoko erretratua erakutsi genion eta berak esan zigun hor 104 kilo pisatzen zitzula. Oin mehiaua eta ilia zurixaua zakan.

- Berehala etorri ziren ertzainak, ez?

- Bai, ez dakitx zenbat patrulla etorri zian. Semia hona heldu aurretik Aldaia eraman zeben eta batzuk inguruak erregistratzen geratu zian.

- Zuk ere deklaratu behar izan al duzu?

- Bai, galdera mordo

bat erantzun bihar izan ditzut egun hauetan, bai er- tzainei bai eta periodistei ere.

- Egon al zara berriz Aldaiarekin?

- Ez, neri inork ez dia deitxu ezertarako. Altunak telebisiuan zeozer esan zabala entzun dot baina zuzenian ezer ez. Gustauko jatan Aldaiakin egotia baina beste forma batian, trankilao.

- Esperientzia honetatik, zei oroitzapen geratu zaizu?


- Aldaiarekin espe- rientzia ona izan zan, lo uniko, periodistekin geratu naiz oso deskontento. Tra- tamentua txarra izan da. Domeka goizian, piskat deskantsatzen geundenian mordo bat etorri zian etxe aurrera eta atia zabaltzen ez genduan, ostikadak jotzen hasi zian, atia bota bihar zabela pentsatu naban. Ez dake errespeto- rikan. Ertzainari deitxu eta hauek esan ziatzen onena zala deklarazioak eixia, honela pakean uzteko.

- Bildotsak fama du zue- nean.

- Baina hemendik aurrera eta egun batzuetan, Aldaia agertu zan tokixa bezala ezagutuko gaitxue.

# BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 22. GEHIGARRIA



**O**rain urte batzuk hasi zuten Osasuna Eskolan programa. Eta gaur egun oraindik ere jarraitzen du. Herri Eskolan izan gara eta bertan, eskolaurreko haurrek nola gosaltzen duten ikusi dugu. Hiru txandatan banatuta, astean behin eskolan bertan armozatzen dute neska-mutil txikienek. Zumoa eta esnea zerealekin batzuetan, ogia gurina eta mermeladarekin besteetan... Lagun artean eseri eta muturrak txokolatez zikintzen disfrutatzen dute, gero garbitu eta gelara, jolastuz ikastera.

## *Txistea*

- Ea Gaizka, ba ote dakizkizu bi izenorde?
- Nork, nik?
- Bikain, mutiko. Ea, hurrengoa.



## Jakitunen eskutik

### Umeak eta informatika

**G**aur egun informatikak duen garrantzia gero eta handiagoa da. Argi dago ordenagailuak asko erraztu dituela langintzak. Horren adierazgarri da ordenagailuak toki guztietan aurki ditzakezula bai enpresa, komertzio, eskola zein etxeetan.

Pertsona asko dago oraindik ere ordenagailuari idiak trenari bezala begiratzen diotenak baina etorkizunean beharrezko erreminta izango dela onartu beharra daukagu.

Horretarako gaztetatik prestatzen hasi beharra dago, azken finean informatika asignatura bat gehiago bihurtu baita gure gizartean.

Umeek gauza on bat dute, edozer gauza ikasteko irekita daudela eta horrelako makinei beldurrik ez dietela. Hori aprobetxatuz eta euren gerari begira, ahalegin guztia egin beharko genuke gai honetan.



**ARANTZAZU UNAUE**  
JAKIN informatika  
akademiakoa

Ume txikienezkat, 2, 3, 4 urte dituztenentzat, jolasteko ordenagailu txikiak daude. Jolas horiekin haurrak bere haurtzaroko lehen urratsak eman ditzake. Ordenagailua bere heziketarako lagungarri den tresna bihurtzea lortu behar da liburu, ikusentzuteko tresna gisa eta abar. Hortik hasita, handitzen doazen heinean, ordenagailu normal batekin has daitezke marrazten, idazten, jolasten edo eskolako lanak egiten.

Horrela, etorkizunean erraztasun handiagoarekin lortuko dute informatika munduarekin bat egitea.

Orain dela gutxira arte arazo bat zegoen, ordenagailuko programa guztiak gaztelaniaz edo ingelesez baitziren, baina poliki-poliki euskaratzen hasi dira gutxi batzuk eta aurrerantzean ordenagailua euskaraz ere erabiltzeko aukera izatea espero dugu.

## Zer iritzi daukazu *bakalao musika*...ri buruz?



*Bakalaoa musika mota bat da, oso polita, jaiak ospatzeko balio duena. Adibidez, "Makarena" bakalao musika da.*

LEIRE AGEA. 7 urte



*Niri ez zait asko gustatzen baina exzitantea eta basatia dela uste dut.*

JOSE ANTONIO ALONSO. 14 urte.



*Oso polita da eta oso eritmo rokeroa du ipurdia eta gorputza oso ondo eta azkar mugitzeko.*

LEIRE AREBALO. 11 urte




**Mckcpq Fwfk qdt q**  
6 wt vg

1. Zein den neskarik politena.
2. Korrika azkar egiteko.
3. Disneylandiara.
4. Sartzerakoan irteera non dagoen begiratuko nuke ez galtzeko.
5. Barbye-ren kolonia.
6. Izeba Martaren oinetan, berarekin partxisean jolasten dudalako eta oso ondo pasatzen.
7. Rosaritorena.
8. Hasieran argia eta lo hartu eta gero, amak itzali egiten du.

## Galde debalde

- 1- Zer galdetuko zenioke ispilu magiko bati?
- 2- Pozima magikoa zertarako edango zenuke?
- 3- Nora joango zinateke alfombra hegalaria batean?
- 4- Laberinto batean galduko bazina?
- 5- Gehien gustatzen zaizun usaina?
- 6- Oinetakoa bazina, noren oinetan egon nahi zenuke?
- 7- Noren autografoa izan nahi zenuke?
- 8- Lotarako, argitasuna ala ez?



**Apf gt Scej g**  
12 wt vg

1. Ia zelako notak eukiko ditzuten kurso bukaeran.
2. Indarra eukitzeko.
3. Hawaira.
4. Hormetan gora igota aterako nintzake.
5. Larrosarena.
6. Carl Lewis-en oinetan.
7. Claudia Shiffer-ena.
8. Nahixao dot iluna egotia.

## Zer da... *edertasuna* ?

**IDUNE MARTINEZ 8 wt vg**



"Udaberria ailegatu dela."

**DASCUAL BLANCO 11 wt vg**



"Gaueko izarrak ikusten ditudanean nire nobixia imajinatzen dut. Hori da edertasuna."

**SANDDA MONTES 8 wt vg**



"Adibidez kaletik ikusten baduzu neska polit bat esango duzu: ala, zer ederra den!"

**MIRIAM SANCHEZ 9 wt vg**



"Pertsona batengan sentitzen duzun itxura polita da edertasuna."

**NEDEA MUGERZA 11 wt vg**



"Gure tutorea ilargira joatea da edertasuna. Hau disparate galanta!"

**IGOR ARREGI 9 wt vg**



"Mendi loretsuak ikusten ditudanean edo mendi handi batetik beste mendi txikiagoak ikusten dituzunean."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



**ERLANTZ MARTINEZ, 9 urte**

"Kanpinean jun nitzan oportetan lagunekin eta irakasle gabe. Orduan, Ibanekin, nere lagunakin, errekarra jun eta han neska batzuren nobixuak ein ginan. Rubixak eta begi urdinekin. Bi edo hiru aldiz errepikatu jata."

**OIHANE GARATE 9 urte**

"Nere lagun guztiak zeukaten aktore faborituena eta nik ez. Behin zinera jun ginan eta han aurkitxu naban baina oso aktore txarra zan eta jendiak tomatiak botatzen zionez, penaz desagertu egin zan. Nik pelikula bat egin naban eta nere lagun danak ikusi zaben eta asko gustau jakuen."



## 3. Asmakizunak:

- Zer dela eta zer dela urdailean kosk egiten duena?  
.....
- Zer dela eta zer dela letxuga izan gabe orriz orri biluzten dena?  
.....
- Zerez beterik pisatzen du upela batek gutxien?  
.....

ERANTZUNAK: 1.- Segundo Raigoso, 2.- Kontaiguztu Inoiz izan duzun ametsen bat, 3.- gosea, egutegia eta zuloz beterik.

## 4. Ahalegindu zaitetz lore berdinak batzen lerro batez baina beraien artean gurutzatu gabe.





## Erroka Kastrillejo

### Xigortze dendakoa



● **Bizitza kafea balitz, zer botako zenioke gozatzeko?**

▶ Adiskidetasuna.

● **Ametsak errealitate egiteko makina bazenu?**

▶ Bizitza lasaia egingo nuke.

● **Zure esku balego, zer xigortuko zenuke hauts bihurtu arte?**

▶ Estresa, presioa...

● **Zein osagaiz egingo zenuke koktel bat?** ▶ Adiskidetasunaz, lasaitasunaz, osasunaz eta burukominik gabeko bizitzaz.

● **Zein hitz kenduko zenuke hiztegitik?** ▶ Frakaso.

● **Kapritxoren bat?** ▶ 15 eguneko oporrak ezer egin gabe.

● **Kafearen usaina ala zaporea nahiago?** ▶ Usaina.

● **Berriz jaioko bazina?** ▶ Orain arte egin dudana egingo nuke.

● **Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?**

▶ Oin moduan baina 15 kilo gehixokin.

● **Hitzegin ala entzutea?** ▶ Entzutia.

● **T.B.ko zein iragarki duzu gustukoena?**

▶ Coca-Colak artzekin egin zabana.

● **Zer eramaten duzu poltsikoan?** ▶ Painueloa eta giltzak.

● **Tentaziorik?** ▶ Oin momentuan ez.

● **Bizitza "sobre sorpresa" bat balitz?**

▶ Oin dala 200 urteko bizimodua tokatzia eskatuko nuke, mendixan, animalixekin, ortuakin... Fabrikarik gabe.

● **Hortzak garbitzeko zure zepiloak zein kolore du?** ▶ Urdina.

● **Sekula bidali edo jaso al duzu fax bat?** ▶ Bai.

● **Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?** ▶ Telediariuetako notiziek.

● **Motorrean ibili izan al zara inoiz?** ▶ Bai, baina nahixao dot kotxia.

● **Zure burua hitz batez deskribatu beharko bazenu?** ▶ Lasaia.

## TXANKAKUA INGURUKO OBRAK

### DOINUA:

Ni ez nintzake

Aspalditxikan gure Elgoibarren  
lau gitxi ta mila aldapa.

Errekaurreko balkoira urtenda  
tristuria sartu jata.

Makina haundi bat agertzen da han  
arrotzen mila lur kapa.


Herrerixia zauan lekuan  
zulo haundi bat lagata.

Garai bateko Santa Klarari  
pasau jako denboria.

"Berrixak zarran lekua hartzia"  
izaten ei da legia.

Herriko gauza berezko asko  
desagertzen ari dia.

Izana ere galduko ote doun;  
hortantxe dakat dudia...



JON BARANDIARAN



**NORFO SL**

**La Estrella**  
ASEGURUAK

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

## Udaltzaingoak grua zerbitzua indartzeko asmoa dauka aurrerantzean

Orain arte oso kasu gutxitan erabiltzen zen garabia edo grua Elgoibarren. Arrazoia, beste batzuen artean, gordelekurik ez egotea zen. Halere, jakin dugunez, Udalak San Roken lokal bat eskuratu du eta bertan sei kotxe sartzeko tokia omen dago. Aurrerantzean, beraz, litekeena da garabiaren zerbitzua gehiagotan erabiltzea.

**1** 995ean 17 aldiz erabili zen garabia. Batez ere pasabideetan aparkatuta zeuden kotxeak erretiratu ziren. Horrez gain, feria egunetan eta ekintza edo jaietarako erreserbatutako tokietan aparkatu izanagatik jo behar izan zuen Udaltzaingoak garabiaren zerbitzura.

Aurten, datu zehatzik ez bada ere, pare bat aldiz gutxienez erabili izan da garabia. Eta kotxea berreskuratzeko, jabeak 7.300 pta.

ordaindu behar ditu. Jabier Oñederra sargentuak esan digunez, “Udalaren asmoa ez da garabia erabiltzea. Guk jendea kontzientziatzea nahi genuke. Izan ere, behar baino kasu gutxiagotan erabiltzen dugu garabia baina batzuetan beharrezkoa izaten da”. Herriko hainbat tokitan beti gertatzen dira arazoak, “esaterako, Pedro Muguruzako zebra bidean. Ezinduentzako pasabidea dago eta askotan jendeak kotxea aparkatzen du bertan”. Oñede-

rraren hitzetan, “herritarrok ahalegina egin behar dugu besteak errespetatzeko. Norberak berea bakarrik begiratzen badu alferrik gabilta. Kotxea aparkatzen dugunean, nahiz eta denbora gutxirako izan, beste entzat nolako oztopoa jartzen ari garen ikusi behar dugu. Eta ahal den neurrian horiek ebitatu. Horrela, garabia ere gutxiago erabiliko dugu”.



Zenbait tokitan garabien seinalea jarrita dago.

### Noiz eraman dezaketen autoa guvarekin

- Kotxeak, aparkatuta dagoenean, arriskua sortzen duenean.
- Zerbitzu publiko bat edo trafikoa oztopatzen duenean.
- Bigarren ilaran aparkatuta dagoenean.
- Baimendutako pasabideetan aparkatzeagatik.
- Zebrabideetan, espaloi gainean aparkatzeagatik.
- Zamalanak egiteko egunetan horretarako den tokietan aparkatzeagatik.
- Autobus geltokian aparkatzeagatik.
- Trafiko seinaleak oztopatzeagatik.
- Larrialdirako guneetan aparkatzeagatik.

### BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

*Eskulanean  
saiatzzen gara*  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

## Altzola

■ XVIII. mendearen azken laurdenean, Soraluzeke armen erret fabriketako gremioek Bergararik Altzolarainoko bide berri bat eraikitzeko proiektua martxan jarri zuten. Bide berria egiten ari zela, Deba eta Mutrikuko udalek euren portueta-raino luzatzea eskatu zuten. Bai eta lortu ere, Mutrikuk Debaraino eta Debak Mendaroko plazaraino eraiki baitzuen bidea.

■ Elgoibarrek, bide berriak Altzolako ibai-portua ixtea ekarriko zuela eta altzolar askoren lanbideak eta irabaziak desagertu egingo zirela jabetuz, ez zuen parte hartu bailara mailako proiektuan.

■ Halere, azkenik, Independentzia gerraren ostean, "Deba ibaiko bidearen hermandadeak" (Bergara, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Deba eta Mutrikuk osatua) Altzola Plaza bide zatia

eraiki zuen, Altzolaren gainbehera ekarri.

■ Ia mende erdiko krisia ezagutu eta gero, XIX. mendeko erdi aldean Altzolaren eraldaketa gertatu zen bertako ur beroak ustiatzen hasi zirenean.

Iharduera berri honetatik, Bainuetxea, Albizkoa, Ituarte, Sebastiana, Larrañaga, Bulebar, Alzola eta Celaya hotelak eta Leocadia, Juliana eta Dolores Azpiri pentsioak jarri ziren martxan.

■ Garai bateko lonjari, txalupa gidari eta enpresariak lanbide berria ikasi behar izan zuten eta honekin batera lehengo zenbait dorretzek bainu hartzaileei atek ireki egin behar izan zizkieten.

PELLO ARRIETA



## Marcos Gorostiza Osoro (1904-1953)



- 1904ko apirilaren 25ean jaio zen.
- "Santuru" tarren lehen belaunaldiko anairik gazteena zen, zazpigarrena.
- Oso gaztetatik bizargin eta ilea-paintzaile lanbidea ikasi zuen anaiekin. San Frantzisko kalean ileapaindegia ireki zuen (Kartutxo denda dagoen tokian). Libre zeukan denbora tarreak eskopetagitza eta "basculero" lanak ikasteko izaten ziren.
- Futboleko jokatzeko zuten, C.D. Elgoibarko lehen taldean. Pilotazale porrokatua ere bazen.
- Diario Vasco egunkari berriemalen zen. Gerra garaian exiliatu egin zuten baina beranduago berriz ekin zion kazetari lanari. "Cosmar" izenpea erabiltzen zuten bere artikuluetan.
- Lucio Loiolaren eskopeta lantegian egiten zuten lan eta 1947ko krisiaren ostean San Migeleko bidea egiteko lanetan hasi zen.
- Pertsona lasaia zen, hortik herrian "astiro" izenez ezagutzea.
- 1953ko abenduaren 17an hil zen.

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 beheka. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**TEXTIL HOGAR LAGUNAK**

Jantzi zure logelak diseinu berriekin.

**DEITU KONPROMEZURIK GABE!**

**Olaso kalea 54 Tel: 74 44 57 ELGOIBAR**

## MOTZAK



### Gorka Sanchez Gipuzkoako Txapeldun 1.000m.tan

Gorka Sanchez korrikalari elgoibartarrak Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartu zuen joan den domekan eta 1.000 metroko kadeten lasterketan urrezko domina irabazi zuen. Elgoibartarrak 2'50"etan burutu zuen lasterketa. Aire libreko pistako Gipuzkoako txapela lortu ondoren, beste horrenbeste egiten saiatuko da igandean Donostian izango den Euskadiko Txapelketan. Zorionak eta zorte on!

### Txirrindulari jubenilen premundiala

Larunbatean, hilak 20, Estatuko 17 herrialde ezberdinetako txirrindulari jubenilen selekzioek parte hartuko dute Bergaran izango den premundialean. Gipuzkoako klubei dago kienez, talde guztiek izango dute premundialean parte hartzeko aukera, talde bakoitzetik sei txirrindularik korrituko dutelarik. Lasterketa Bergaran hasi eta bertan amaituko da eta 125 kilometroko ibilbidea bete beharko dute.



**Karmel Leon:**

### "Etorkizuna daukatela esaten dia entrenadoriak"

■ **Zer moduz doa pilota denboraldia?** - Ondo hasi ginan torneo batian baina lagunari eta neri ere eskuak izorratu jakuzen. Kluben arteko txapelketia zan eta laga ein bihar izan gendun. Intxaurrondo hasi ginan gero eta eliminatoriak pasau gendun eta finalaurdenetan galdu ein gendun 18 eta 1, desastre.


■ **Deba Arroko txapelketa ere jokatzen ari zarete.** - Ni oin ez naiz jokatzen ari eskuetako mina daukatelako. Oin herrixen artekua hasi bihar da. Danetatik inportantiena da eta lehen partidua Anoetakoen kontra irabazi ein gendun.

■ **Zer esperantza?** - Kontrarixuan arabera aldia dao. Iaz lehenengo eliminatoria sortezo pasau gendun baina gero kanpeioen kontra, azkoitiarren kontra tokau jakun eta berehala geratu ginan eliminauta.

■ **Zein dira zuen mailan onenak?** - Azkoitiarrak onak dia, eibartarrak, Plazentzikuak, Elgetakuak... Elgoibar erdi mailan dao.

■ **Eskuko mina ei da pilotarien gaitza.** - Hazurrian moratua irtetzen jatzu eta pare bat astian euki biozu jokatu be edo takuak ipini. Normalian hiru tako ipintzen ditzut eta oin bost jarri bihar ditzut jokatu ahal izateko.

■ **Mina izan arren jokatu ein behar?** -



Takuekin aguantau leike. Enplastuak eta pomadak ere ematen ditzut.

■ **Eskubaloian ere aritzen zara.** - Bai, baina lagatzekotan nao. Iaz pentsatzen nabari lagatzia baina azkenian jarraitxu ein nabari. Datoren urtian ez dot jarraitxuko.

■ **Sakea inportantea izaten omen da.** - Belokik adibidez, sake izugarria dauka. Sake ona eukitzia inportantia da buruz burukuan batez ere. Binakakuan, berriz, atzelari ona eukitzia eta aurrelariak mobitzen jakitzia izaten da inportantia.

■ **Bitatik zein nahiago?** - Pilota. Gainera, barixakuetan jokatzen danez, asteburuak libre izaten diaz.

■ **Ikusten al duzu zeure burua profesional moduan?** - Ez. Entrenadoriak hamendik urte batzuetara zeozer eingo dotela dio baina animuak ematiarren esaten dau.

■ **Euskadiko txapelduna nor?** - Beloki da faboritua. Eugin aurkako partidua gogorra izango dala esaten dabe baina Belokik egurra eman-go dio.

• Adina: 16  
• Jokaldirik efektiboena?  
Txokora moztia eta sakia  
• Pilota arinak ala motelak? Arinak eta pisutsuak erretzao kontrolatzen diaz



**EGONDO, S.L.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

# Martin Fiz eta Diego Garcia korrikalariak igandeko Haur Krosean izango dira



**H**aur Krosaren III. edizioa antolatu duen Kilometroak 96ko batzordeak ikutu berezi-berezia eman nahi izan dio igandean herriko kaleetan zehar korrituko den Haur Krosari. Munduko korrikalari onenen artekoak diren Martin Fiz eta Diego Garcia euskaldunak Haur Krosean izango dira herritarren gozamenarako.


Errosario kalean jarriko den irteera puntuan egongo dira bi korrikalariak, eta bukaeran sariak banatuko dituzte. Bi korrikalariak gertutik ikusteko eta autografoak eskatzeko aukera ezin hobea izango dute zale guztiek.

## 13 lasterketa guztira

Lehen lasterketa eguerdiko 12,15etan hasiko da eta lehen mailako neskek korrituko dute. Segidan mutilen txanda itzango da. Jarraian bigarren mailako nesken lasterketa izango da eta ondoren mutilena eta horrela zortzigarren mailako ikasleek korritu arte. Azken lasterketa eguerdiko ordubaten hasiko da eta zazpigarren eta zortzigarren mailako neska-mutilek hartuko dute parte, denek batera. Mailak kontuan hartuta, ibilbide ezberdinak egongo dira. Lehen eta bigarren mailako ikasleek 320 metroko distantzia bete beharko dute: Plaza, Kultur Etxea eta berriro Plaza. Hirugarren eta lauugarren mailakoen

lasterketa luzeagoa da: distantzia bikoitza burutu beharra izango dute, 615 metro eta Loriton bira egingo dute Plaza alderantz. Ordu-batak laurden gutxiagotan, 5. eta 6. mailako haurrak irtengo dira. Hauek Madalan izango dute bihur-gunea eta korritu beharreko ibilbidea ia kilometro batekoa da. 1.420 metroko lasterketa izango da azkena, zazpigarren eta zortzigarren mailako haurrentzat.

Parte hartuko duten 425 haurrak Errosario kaletik aterako dira eta helmuga Plaza Handian izango dute. Azken lasterketa amaitu bezain pronto sari banaketa ekitaldia hasiko da. Partaide guzti-guztiek izango dute domina.



**Diego Garcia Europako marathoi txapeladunordea da eta Martin Fiz Munduko eta Europako txapeladuna. Behean iazko lasterketaren helmuga.**

## MOTZAK

### Mendi irteera Aiako Harrira Morkaikorekin

Morkaiko Mendizale Elkarteak Aiako harrira mendi irteera antolatu du hil honen 28rako, igandea. Joan nahi duten guztiak goizeko 8etan elkartuko dira Plaza Handian. Mendizale guztientzat moduko irteera izango da, ez gogorra ez eta luzeegia ere. Izena emateko ostiraletan iluntzeko 7etatik 8etara bitartean egoitzatik pasatu.

## KiROL EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 1** - Mondra 0  
**Beti Ona 0** - Elgoibar 2 (**Jubenilak**)  
**Bergara 4** - Elgoibar 5 (**Neskak**)  
**Kilimon 1** - Elgoibar 2 (**1. erreg.**)

### Eskubaloia

**Urnieta 9** - Elg. Pagoaga 19 (**Kad. neskak**)  
**Bidebieta 14** - Elgoibar 40 (**kad. mutilak**)

### Pilota

**Deba Arroko Txapelketa**  
 Elgoibar 2 - Deba 1  
**Zaldibiko Promozio Txapelketa**  
 Bergara/Murua (Lagunak) 18 -  
 Etxaniz/Goenaga (Azkoitia) 0  
**Herrien Arteko txapelketa**  
**KADETEAK**  
 Landa/Zabala (Anoeta) 14 -  
 Leon/Garate (Lagunak) 18  
**SENIORRAK**  
 Arrieta/Errazkin (Anoeta) 22 -  
 Garitagoitia/Alzibar (Lagunak) 18

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 20**  
**12,00** S.D. Eibar - Hernani (**Kadeteak**)  
**15,00** Urki - Gazteak (**Erreg.**)  
**17,00** Elgoibar - Mondra (**Neskak**)  
**Igandea, 21**  
**10,00** Urki A - Landetza (**Jubenilak**)  
**12,00** Elgoibar - Arantzazuko Ama (**Infantilak**)  
**17,00** Elgoibar - Azkuene (**Jubenilak**)


### Saskibaloia, Kiroldegian

**Larunbata, 20**  
**19,00** Elgoibar - Lesaka

## Elgoibarko industriaren bilakaeraren historia Luis Maria Ecenarroren eskutik

Joan den asteartean Luis Maria Ecenarro Osoro apaiz elgoibartarrak idatzitako liburua aurkeztu zuten jende aurrean Kutxa Fundazioko arduradunek Herriko Antzokian. “Elgoibar: de las ferrerías a la máquina herramienta (maestros rejeros, relojeros y armeros)” izenburuko liburuaren aurkezpen ekitaldian Guillermo Garate alkateak, Enrike Zubiaurre Elgoibarko Kutxako zuzendariak, Koldo Lizarralde historialariak eta liburuaren hitzaurrea idatzi duen Karmelo Urdangarinek parte hartu zuten Kutxako ordezkariekin batera.

**J**uantxo Egañak egindako “Elgoibar: atzo eta gaur” izeneko diaporamek Elgoibarko historiaren une ezberdinak azaldu zituen. Elgoibarko burdinolak, Altzolako portuaren garrantzia Elgoibarko eta bailara osoko industriaren garapenerako, industriaren bilakaera, teknologia berrietara nola egokitu diren herriko enpresak etab. Ecenarroren liburuak guzti hau biltzen du. Gure herriaren historia sozioekonomikoaren gora-beherak, herriaren sorreratik gaur egunera arte, erreminta makinaren produkzioan duen paper garrantzitsua aztertzen duelarik. Lautan banatzen da apaizaren lan mardula: Altzolako portua, burdinolak edo ferreriak, rejeroak, eta armagintzatik erreminta makinarteko sasoia. Aurkezpen-mahaikideek Ecenarroren ikerketa sakona eta Kutxaren lanagoraipatu zuten.




Goian, Herriko Antzokian izan zen Ecenarroren liburuaren aurkezpena. Lerro hauen gainean, ezkerrean, Altzolako Olaetxe dorretxea eta eskuman, elgoibartar maisu batek egindako burdinsarea Segoviako katedralean.

### Historiagile elgoibartarra

80 urte dituen apaizak Elgoibarri buruzko artikulua historiko ugari argitaratu ditu. Elgoibarko jaietako programetan, 1963, 1964, 1965 eta 1967. urteetan “El juego de la pelota en Elgoibar” izenpean hainbat artikulua argitaratu zituen Luis de Ubitarte izenarekin. Frontoia eraiki aurretik eskupilota non eta nola jokatzen zen eta herriko hainbat monumentu aztertzen ditu. 1967an beste artikulua bat kaleratu zuen: “Torrea de Elgoibar no es la torre de Olaso. Su escudo es de los Alzolas”. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-en boletinean ere hainbat idatzi kaleratu zituen. 1931ko boletineko “Las casas de Carquizano (Garquizano y Zabala de Elgoibar)” izeneko 66 orriko separata Luis Ecenarrok idatzitakoa da eta 1980ko boletinean “Elgoibar. El fuero de las ferrerías” izeneko artikulua argitaratu zuen. Elgoibarko historia ikertu duen gizon hau Donostiako Artzai Onaren elizako abeslari izan da urte askoan.

## Egur tailerreko kuadroak ikusgai daude Txankakuako dendetan

**T**xankakua Merkatari eta Zerbitzu elkarteak, Kutxa, Udala eta Egur arte tailerrarekin elkarlanean, koadroen erakusketa antolatu du. Margoak Txankakua elkarteko kide diren dendetan daude erakusgai, bai eskapareetan bai denda barruetan eta denda horietako bezeroen artean koadroen zozketarako txartelak banatuko dira. Koadro guztiak herriko pertsonen urtean zehar Egur tailerrean margotutakoak dira. Zozketa maiatzaren 17an egingo da eta erakusgai dauden koadroetatik hiru banatuko dira sari modura. Horietatik bi Txankakuak oparituko ditu eta bat Udalak.



## Oscar Tiradoren erakusketa Kultur Etxean maiatzaren 5era arte

**U**dal Kultur Zerbitzuak Oscar Tirado bilbotar margolari gaztearen erakusketa prestatu du gaurtik hasita maiatzaren 5era bitartean Kultur Etxeko erakusgelan. Erakusketaaren inaugurazioa gaur, hilak 19, izango da arratsaldeko 7etan. Bilboko eta Elgoibarko lekuak akuarela eta oleoetan margotzen ditu Tiradok, forma eta koloreen bidez idealizatutako errealitatea erakusten dutelarik. Irudiari mugimendua ematen dioten lerroak eta pintzeladen inguruan beltzuneak ageri dira. 23 urte dituen artista honek zortzi erakusketa egin ditu gaurdaino. Enrique Frances-ekin marrazki, margo eta akuarela ikas-



taroak egindakoa da eta Manuel Balsarekin marrazki klasikoari buruzko klaseak jaso ditu.

## Lan-galerari buruzko obra komikoa Herriko Antzokian gaur, hilak 19

Zornotzako Markeliñe taldearen La Garbo S.A.-Kale Gorrian “persona batek lana galtzen dueneko momentua era komikoan” kontatzen duen antzezlan da. Iñaki Egiluz aktoreak eta Jon Kepa Morenok teknikoak prentsaurrekoan azaldu zuten, “aktore lanari garrantzia eman nahi izan diogu, hortik lan mutua izatearena. Hitzik ez erabiltzean jendeak guk adierazi nahi genuena ulertzea da zailena”. Istorio komikoa da, barregarria, baina une dramatikoak ere badituen. Beraien esanetan, “jendea harapatuta geratzen da istorioan, izugarri ondo pasatzen du eta bukatu inpaktantea du, jendea zer pentsatu ematen diona”. Lan honek kritika oso onak izan ditu eta Azpeitiko Jaialdian epaimahaikoen eta ikuslegoaren sariak jaso zituen. Antzezlan gaueko 22,30etan hasiko da gaur, hilak 19, Herriko Antzokian.

## Liburuaren eguna

Datorren asteartean, hilak 23, Nazioarteko Liburuaren eguna ospatzen da. Elgoibarren Udal Liburutegiak ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du haurren artean irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahian. Aurtengoa bigarren edizioa da; izan ere, iaz izandako arrakastaren ostean, 400 bat lagunek hartu zuen parte, berriz antolatzerantz animatu dira Liburutegiko arduradunak. Marrazki zein ipuin lehiaketaren gaia bidaia-istorioei buruzkoa da. Lanak orrialde batekoak izango dira gehienez eta apirilaren 23a baino lehenago aurkeztu behar dira Liburutegian. Marrazki lehiaketan lehen mailatik 4ra bitarteko haurrek hartu ahal izango dute parte eta idazlan lehiaketan 5etik 8.era bitartekoek.

## Zer moduz Aste Santuan?



### Llanes

Naiara Barrenetxea, Lorea Arenas, Olatz Albarran, Bidatz Azpiazu, Aritz Zarandona, Patxi Beitia, Amaia Rodriguez eta Amaia Rezolak bost egun pasatu dituzte Llanesen. 40.000 pta. ordaindu zuten apartamentu bategatik. 18 urteko neska-mutil hauek kotxez joan ziren eta "aukeria izan dou batera eta bestera ibiltzeko". Hondartzak, herriak eta elizak ikusi dituzte, "kandela mordo bat piztu ditxugu desioak eskatzen" eta bati desioa bete egin omen zaio esan digutenez. Gaueko mobidarik ikusi gabe ezin ibili eta tabernak oso ondo daudela iruditu zaie, "han udako abestixa entzuten hasitxa dao". Anekdotarik ere izan zuten, "behin gure etxia erretzen zauala esan ziguten. Korrika jun ginan eta ezer ez genduan ikusi. Azkenian, goiko bizilagun baten zartainia zan keia ateratzen zabana. Egun osua pasatu gendun erre usaina hartzen!". Penaz etorri dira, "azkenengo

egunian negarrez". Dena dela, batera edo bestera joan, "lagun artian beti ondo" pasatzen dutela aitortu dute.

### Xoxote

Argoitz Iriondo eta Urtzi Alkortak 17 urte dituzte. Beste lau lagunekin batera Xoxotera igo ziren, kanping-arekin, "oporrak ziala aprobetxatuz norabaitxera jutia pentsatu gendun eta zeozer merkia nahi gendunez...". Lata batzuk erosi eta butanilloa motxilan sartuz abiatu ziren, "gero latakak janarixa berotu eta haura jaten gendun. Gosaltzeko refujixora juten ginan, zeozer berua hartzeko". Pare bat egun bakarrik igaro zuten bertan, "egualdixa txarra zauan eta gabian kriston hotza pasatzen gendun. Hori bai, gero, arratsalde baten eguzkitxan etzan ginan eta orduan erre egin ginan!". Erlora igo ziren behin baina beste mendirik ez zuten egin, "gure asmua trankil egotia zan,

etzanda egon ginan ixa denbora guztixa". Planak gustuen eta poltsikoaren arabera egiten dira beti, "eta guk ondo pasatu gendun, egun batzuk deskonektatzeko behintzat euki gendun".

### Formigal

Formigalera eskiatze-

txartela eta Super1-eko karneta erakusten genitxun, gure anai txikiei eta lehengusuei hartutakoa. Aurpegi txarra jartzen ziguten baina azkenian merkia atera zitzaigun". Etxean oso ondo moldatu dira, "fregaua txandaka egiten gendun eta nahiko gogorra zan ze ur hotzakin egin bihar gendun, gero siutxatzerakuan ur berua eukitzeko". Hauek ere gauez atera ziren, "baina jende guztixa gu baino zaharrau zan. Egundian zihar ikusten genitxun morenazo guapuak ez dakigu nun sartzen zian!". Oraindik argazkiak errebelatu eta ikusten dauden arren, aitortu digutenez azterketei begira jarri dira dagoeneko, "apuntiak eramane genitxun hara baina alper-alperrik!".



ra joatea erabaki zuten Miren Mujika, Nerea Oñederra, Iraia Barrutia, Ana bereziartua, Leire eta Aitor Zubiaurre eta Amaia Sastrek, "autobusian zortzi ordu egin eta gero ailegau ginan". Iritsi zirenean elurra zegoen arren gainontzeko eguntan zerua oskarbi izan zuten, "gutako biri begiak erre zitzaizkien betaurrekorik gabe eskiatzematik". Egundero eskiak alokatu behar zituzten eta nahiko garestia ateratzen zitzaien, "horregatik guk Gazte





## Garajeak

- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.  
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.  
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut P. M. Urruzuno 12-14an.  
☎ 74 22 00  
gaueko 9etatik aurrera

## Lana

- ❖ Era guztietako GARBIKETAK egingo nituzke. ☎ 74 15 42
- ❖ Garbiketa lanak egiten ditut. Lan orokorrak eta obra bukaerak.  
☎ 74 39 63 Alicia

## Etxebizitzak

- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako abuztua izan ezik SANTA POLAN.  
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 24 51
- ❖ ETXE BAT SALTZEN dut Urasandin, guztiz eraberritua. 75 m<sup>2</sup>.  
☎ 74 18 94  
☎ (945) 27 78 08
- ❖ LOKAL bat saltzen edo alokatzen dut Urasandin.  
☎ 74 18 94  
☎ (945) 27 78 08
- ❖ ALOKATZEKO BUHARDILA edo pisu merke bat nahi nuke.  
☎ 74 27 90
- ❖ Etxe bat saltzen dut Errosario kalean.  
☎ 74 20 09 (gauez deitu)
- ❖ Etxe bat alokatzen dut.  
☎ 74 16 93
- ❖ Jantzitako pisu handi bat daukat alokatzeko.  
☎ 74 04 75

## Salerosketak

- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 24 51 Maite
- ❖ BOXER TXAKURKUMEA saltzen ditut.  
☎ 74 28 68 gauez
- ❖ 80ko BI OHE DITUEN ARMAIRU BAT salgai. Haur logelarako aproposa. Egoera oso onean.  
☎ 74 22 88
- ❖ Liburuentzako ARMAIRU BAT eta BI LOGELA saltzen ditut. Egoera oso onean.  
☎ 74 15 86 (8etatik aurrera)
- ❖ LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesila. Egoera onean.  
☎ 74 16 77 Kontxi (goizez)
- ❖ HAIZE BEROKO ARROPA SEKADORA saltzen dut. Oso gutxi erabilia. 15.000 pta. ☎ 74 33 41  
gaueko 8etatik aurrera
- ❖ Bigarren eskuko ARGAZKI KAMERA bat saltzen dut. PRAKTIKA BX20. 15.000 pta.  
☎ 74 41 12 Jasone

## Partikularrak

- ❖ OHOKo Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.  
☎ 75 51 04 Ana (Arratsaldez)

## Agurrak

- ❖ Zorionak Joseba Gabilondori hilaren 16an 4 urte bete zituelako. Bere guraso Jon eta Arantxaren partez.
- ❖ Zorionak Maria Jesus Granerori hilaren 23an 12 urte beteko dituelako. Gelako adiskideen partez.
- ❖ Zorionak Migeli hilaren 21ean 25 urte betetzen dituelako. Eskerrikasko denagatik.
- ❖ Zorionak guraso eta ahizparen partez 8 urte egiten dituen Ainhoa Vazquezi.
- ❖ Ostiralean 42 urte betetzen dituen Txomin Zabalari zorionak bere alaba Judithen partetik.
- ❖ Apirilaren 19an 11 urte betetzen dituen Maialen Morari superjudo zorionak bere adiskideen partez.
- ❖ Zorionak apirilaren 14an urteak egin zituen Maite Azkonari. Elisabethen partez musu handi bat.
- ❖ Zorionak apirilaren 19an 11 urte beteko dituen Mailen Morari ikastolako 5. mailakoen partez. Masusta zorionak.

## Bestelakoak

- ❖ MUTILEN JAUNARTZEKO erropa daukat berri-berria. Txiki xamarra da tailaz. Lagatzeko prest nago.  
☎ 74 10 44 (gauez deitu)
- ❖ UME jaio berri batentzat KOTXEA behar du Caritasek.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ❖ BI SILOI dauzka EMATEKO Caritasek.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ❖ 5 NINTENDO dituen plastikozko poltsa bat galdu nuen apirilaren 12an San Rokeko kuarter zahar inguruan. Sarituko da.  
☎ 74 34 11 / 74 25 56
- ❖ ERRENTA AITORPENAK egiten ditugu. ☎ 74 16 88  
Itziar / ☎ 74 07 61 Miren

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

- Anbulategia:  
 Larrialdiak.....461111  
 Txanda hartzeko.....743354  
 Planning-a .....742950  
 Alkoholiko Anonimoak..740385  
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
 Gurutze Gorria.....743864  
 Mendaroko Ospitalea756264  
 Drogomenpekotasun Z.741008  
 Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442  
 PESA (Eibar).....102131  
 Taxi geltokia.....740898

### UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366  
 Udal Kirol Patronatua...744415  
 Kultura Zerbitzua .....742158  
 Mendaroko Udala ....756100  
 Ongizate zerbitzua...743736  
 Udaletxea .....741050  
 Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

- Caritas .....740142  
 Elgoibarko Izarra.....741626  
 IMI.....741196  
 Kontsumo Bulegoa ...743088  
 Liburutegia .....743525  
 Musika Eskola .....742145  
 Mintxeta .....744315  
 Parrokia.....740842  
 Polikirolegia .....741361  
 Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296  
 Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41  
 Herri Eskola .....74 08 79  
 I.M.H. ....74 41 32  
 Institutua .....74 02 67  
 Ikastola .....74 44 41  
 L.H.I.....74 44 80  
 Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12  
 El Diario Vasco .....74 40 73  
 El Mundo .....74 27 59  
 El Correo Español...74 10 82  
 Egin.....10 84 21  
 Zazpiki irratia .....74 34 74

## 19 OSTIRALA

### 19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Oscar Tirado  
✓ Kultur Etxean  
Maiatzaren 5era arte

### 22,15 ANTZERKIA

“La GarboS.A.-Kale gorrian”  
Taldea: Markeliñe  
✓ Herriko Antzokian  
Sarrera: 500 pta.

## 20 LARUNBATA

### 11,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Zazpikiren lokalean

### 19,30-22,15 ZINEA

“Sabrina”

## 21 IGANDEA

### 12,15 III. HAUR KROSA

✓ Plaza Handian  
Antolatzailea: Kilometroak 96

### 19,30-22,15 ZINEA

“Sabrina”

## 22 ASTELEHENA

### 22,15 ZINEA

“Sabrina”

## 23 ASTEARTEA

### 18,00 GAITZ PSIKIKOEN SENITARTEKOEN BILERA

✓ Jubilatuen egoitzan  
Antolatzailea: AGUIFES elkarte

### 22,00 ZINEA

“Sabrina”

## 25 OTEGUNA

### 19,00 GRAFOLOGIA IKASTAROA

1. saioa  
✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

### 21,00 HBren JAIALDI MITINA

✓ Herriko Antzokian

## 26 OSTIRALA

### 18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P. M. Urruzuno Iean

### 22,15 ZINEA

“Broken arrow”

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
20, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
21, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
22, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
23, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
24, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
25, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
26, ostirala:	Yudego	Yudego

### OKINDEGIA:

21, igandea: EIZAGIRRE

# ZineA



## Sabrina

Zuzendaria: Sydney Pollack

Antzezleak: Harrison Ford, Julia Ormond, Greg Kinnear.

Sabrina, familia aberats batentzat lan egiten duen txoferraren alaba da.

Txikitari arbola baten gainera igotzen zen familia aberatseko semeak, David-ek, emakume ederrak nola maitemintzen zituen ikusteko. Sabrinaren ametsa haren besoetan egotea da. Parisen urte mordo bat igaroko ditu Vogue aldizkarian lana egiten. Amerikara itzultzen denean, David erabat harrিতuta geratuko da Sabrinarekin eta jai batera gonbidatuko du. Arazoa da, David emakume dirudun batekin ezkontzekotan dagoela.



A P I R I L A R E N 23 a

# Liburuaren eguna



Irudimena, fantasia,  
abentura, misterioa,  
beldurra, maitasuna,  
tentsioa, zirrara, poza,  
negarra, pasioa,  
irrifarrea, ...  
biziko dituzu.



Done frantzisko, 29  
Tel. 74 32 06  
ELGOIBAR

**GLAZA**

Pedro Muguruza etorbidea, 8  
Tel. 74 16 42  
ELGOIBAR

Liburuek % 10eko BEHERAPENA izango dute

# GREMIOEN

# GIDA

## ARROZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 31 16

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 74 32 38

### JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Ubitarte, 2  
☎ 74 13 33

### LODOSO

Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 3  
☎ 74 34 90

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 74 05 47

### YOSU THERMIK

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 18  
☎ 74 43 83

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea 16  
☎ 74 03 96

## ITYRGINTZA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
☎ 74 17 61

### JAVI

Erretxindi, 1  
☎ 74 14 80

### ONGI

Urasandi, 8  
☎ 74 10 82

### PAGOAGA

San Antolin kalea, 13  
☎ 74 02 79

### ZALDUA

Urasandi, 26  
☎ 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
☎ 74 07 89  
☎ 908 14 30 40

## ISOLAMENDYAK

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Ubitarte, 7  
☎ 74 30 94

## IGELTSERITZA

### KIDEOK S.L.

San Roke, 17  
☎ 74 34 86  
☎ 74 33 60

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
☎ 74 34 18

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24 - 2B  
☎ 74 29 87

### PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5  
☎ (908) 31 96 42

## ELEKTRIZITATEA

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
☎ 74 12 38

### BETI ARGI

Errosario, 6  
☎ 74 16 44

### URZELAI

Santa Ana, 12  
☎ 74 13 76

Gremioen gida honetan zure izena azaltzea nahi baduzu deitu 74 41 12 telefonora.